

## HITZEZ SORTUTAKO BIDAIA

Zuriñe Ruiz Muruzabal

*Pasai Antxo*

Euskaltegirantz gindoazen Carmen, Mari Jose, Arantxa eta ni, Cristina, larunbat eguzkitsu batean. Laurak ezkonduak geunden, haurrekin eta, hori gutxi izango ez balitz, EGA ateratzen saiatzen ari ginen.

– Eta gainera, berak laguntza behar duela esaten dit! Baina a ze babalorea! Nik ere laguntza behar det, horregatik noa euskaltegira!

Carmenek ez zion hitz egiteari uzten gidatzen zuen bitartean. Ni bere ondoan nengoen, barreari eusten, Arantxa eta Mari Jose atzean zeuden bitartean.

– Nik abisatu nizun Beñatek ez zizula ikasten utziko. Beti bere zalantzak argitzen gaude, eta ez du klasea jarraitzen uzten.

– Baina, Cristina, nik ulertzen dut bere zalantzak argitu nahi izatea, baina, joder, ez al du ulertzen bera ez dela klasean dagoen bakarra?

– Beno, beno... utz diezaiozun honetaz hitz egiteari, ez digu onik egingo eta.

– Utzi? No, no... Larunbat guztietan goiz esnatu behar det Lazkaora joateko eta gainera denbora galtzeko joan behar det, ala? Anda y que le den!

– Joan dadila alferrak ferratzera esan, Carmen.

– Aix, Cristina, orain ez da momentua.

Barreari eusten saiatzen ari nintzen Carmen sututa ikusten nuen bitartean, gidatzen eta bere begi marroi ireki-irekiekin. Azkazalak motz-motzak zituen, eta hatzak zuriak, bolanteari gogor eustea-gatik. Bere masailak gorri-gorriak zeuden eta ezpainak hozkatzen zituen bizpahiru aldiz minutuero, oso urduri jartzen zenean.

– Eta zergatik ez diozue irakasleari esaten?

– esan zuen Arantxak.

– A ese? Pero si ese es peor!

– Euskeraz Carmen.

– Nos cuenta su vida en vez de enseñarnos euskera.

– Baina horrela ere ikasi egiten da, entzuten.

– Ikasi? Zer ikasiko dut? Nola jezten diren behiak? Benga ya!

– Beno, berak erabakiko du zer erakutsi.

– Berak Arantxa, ez bera... bueno, hori uste dut.

– Usteak erdia ustel-erantzun zidan Mari Josek.

– Ala, neska! Eta zuk hori noiz ikasi dezu? – galdetu zion Arantxak.

– Ba lehengo astean eman genituen atsotitz batzuk, eta etxeko lanak zeuden gaurko. Hori azaltzen zen orrietan eta gustatu egin zait.

Mari Jose 45 urteko emakume liraina zen, guztietatik baketsuena eta pazientzia gehien zuena. Ile

kizkur eta luzea zuen, eta begi urdin-urdinak. Gainera, altua eta argala zen. Abokatua zela nabari zitzaion: azazkalak margotuak, oinak gurutzatuak eta eskuak belauna helduz egoten zen.

– Atsotitzekin hasi zeazte jada? Guk aditzekin jarraitzen degu. Nor-nori, nor, nor-nori-nork.... Eta neri zer? Bost axola! – esan zuen Carmenek.

– Lasai! Iritsiko zaizu ordua ikasteko eta!- animatu zion Mari Josek Carmeni.

– Beñatekin jarraitzen badet klasean, ez, behintzat. Espero det gaurko klasea desberdina izatea.

– Jolin Mari Jose! Eskerrak gogoratu didazun etxeko lanena! Gaurko idazlan bat idatzi behar nuen eta. – Esan nuen, eskua kopetara eramaten nuen bitartean.

– Ez al dezu egin, ala?

– Ba ez! Ahaztu egin zait! A zer burua dudana....

– Ba egin ezazu orain neska! Denbora daukazu eta.

– Lanik errazena agintzea da.- Mari Josek.- Hori ebai azaltzen zen etxeko lanetan.

– Bai, Mari Josek arrazoi du, ez da lan erraza. Ordu batean ez dit denbora ematen guztia idazteko!

– Beno ba ez egin. Esaiozu ez dezula denborarik izan. Nik hori askotan erabiltzen det, begira: “Gaurko etxeko lanak zeuden ala? Uiba... hain lanpetua egon naiz ez naizela konturatu... barkatu, hurrengo asterako ekarriko dizkizut”. Beti funtzionatzen du. – Esan zuen Arantxak ahots tonua aldatzen.

– Joder con la Arantxa, muy calladita y luego....

Arantxa gu guztietatik isilena zen. Ile motza zuen eta begi handiak. Aurpegia oso borobila zuen eta masailak markatuak. Txikia zen eta bizkarra konkorduna zuen.

– Carmen, euskaraz egin, bestela ez dezu mintza-praktika egingo.- Gogoratu nion.

– Bai, bai, arrazoi duzu.

Hurrengo minutuak isilik pasa genituen, bakoi-tza bere baitan murgildurik, Arantxak hitz egin zuen arte:

– Carmen, non gaude?

– Bidean. – Erantzun zuen berak.

– Bai, bidean gaudela badakit, baina seguru zaude norabide zuzenean goazela?

Esaldi horrek gure arreta piztu zuen. Leihotik begiratu nuenean, bidetxo txiki eta estu bat ikusi nuen, zuhaitzez inguratutik.

– Galdu egin gera- esan zuen Mari Josek.

– Ez, ez gera galdu, ondo goaz.- Esan zuen Carmenek.

– Baietz ba! Galdu egin garela!

– Begira! Herri bat! Goazen gelditzera norbaiti non gauden galdetzeko. Beharbada lagun gaitzake-te.

– Ala! Ze erraztasunarekin atera zaizun aditza, no?

– Bai, ikasten egon naiz aste honetan. Nabaritzen al da?

– Bai, bai, neska. Seguru aurten EGA ateratzen dezula.

– Espero det, bestela nere haur txikienarekin batera egin beharko det froga. Eta berak 11 urte ditu orain.

Herrira sartu ginen eta ikusi genuen lehenengo lekutxoan utzi genuen kotxea. Ibiltzen hasi ginen gure ingurunea ikusten genuen bitartean. Etxe guztiak txikiak ziren, harriz edo adreiluz egindakoak.

– Hemen ez dago inor- esan zuen Carmenek.

– Seguru norbait ikusten degula.

Ibiltzen jarraitu genuen bi gizon zahar ikusi genituen arte. Txapela buruan eta txotxa ahoan zutela, haien makiletan bermatuta zeuden. Haiengana hurbildu ginen laguntza eskatzera.

– Kaixo, barkatu eragozpenak baina galdu egin gera... Esango al diguzue non gauden, mesedez?

– Antzuolan- erantzun zuen bietako batek, ahoskera itxiarekin.

Arantxak guztiei begiratu zigun, ea ulertu genuen galdetzeko asmoz. Hurrengo galdera galdetzera ausartu zen:

– Lazkaora joan nahi dugu.

– Bueltia eman biozue- erantzun zuen besteak, aitaren batean hitz egiten.

– Uste dut ez dozkuela ulertzen – esan zuen lehenengoak, eta ondoren, barrez hasi ziren.

– Nunguak zate?- erantzunik ematen ez geniela ikusita, barrez jarraitu zuten.

– Donostikuak diala uste ot.

Elkarri begiratu genion eta ez genuen hitzik behar izan esan nahi genuena aditzera emateko: ez

genuen hitzik ere ulertzen. Haiek, gure aurpegia ikusita, ahoskera itxiarekin eta “s”-a asko markatuz, honako hau esan ziguten:

– Está a veinte kilómetros hacia allá.

– Eskerrik asko.– Erantzun genien, irribarre eginenez. Ondoren kotxera bueltatu ginen barrez lehertzen.

– Nik uste dut nahigabe Frantziara eraman zaituztela.

– Ez zen Frantzia, Antzuola baizik.

– Baina euskara al zen hitz egiten ari zirena?

– Euskalki batean hitz egiten ari ziren, Carmen.

Minutu batzuk itxoin genituen barre egin ondoren arnasa berreskuratzeko.

– Benga, goazen Lazkaora, ea klase bukaerara iristen geran.

Bidaia berdin igaro genuen, irakasle eta ikasleak kritikatzin eta barrez, iritsi ginen arte. Klasera hurbildu ginen, eta atea ireki genuen:

– Barkatu hain berandu iritsi izana, baina galdu egin gera.

– Galdu?– esan zuen irakasleak- ba begira, ni behin galdu egin nintzen...

Berari moztuz, eta marmarka, Carmenek esan zuen:

– Uste det Antzuolan hobeto geundela. Orain dikan ordu batzuk gelditzen zaizkigu.

– Bai, baina badakizu Carmen, gogozko tokian, aldaparik ez.

– Joder Mari Jose y sus “atsotitzak”.